

KULTUR HITZEN ORTHOGRAPHIA EUSKARAZ

Donostia, 1982-III-26

Federico Krutwig

Hizkuntza guztietan ba dagotza typo askotako hitzak. Hitz hauk batzuetan bilt genitzake hizkera paraleloak diren bildumetan. Frantsesez hunelako hizkerak “niveaux de langage” hitzaren bidez izeneztatzen dira.

Hunelako hizkuntza-niveletan importanteenak:

Mintzatu hizkuntza basikoa dira eta.

Kultur hizkuntza

Bi hizkera hauien artean dagoen differentzia importantea puntu hauietan datza:

Mintzatu hizkuntza

Hizkera *akustikoa* da. Huntan importanteena mintzatu forma da, hitz egiten usatzen dena.

Hizkera hunen tradizioea, ia bethi ere akustikoa da.

Hizkera hau berez, hizkuntza osoaren basia da.

Kultur hizkera

Hizkuntza *optikoa* da. Iratzi hizkuntza. Baldin-eta mintzatu hizkuntza belhaunez-belhaun hizkuntza mintzatzearen bidez konservatzen ba da, iratzi hizkuntza, batez ere liburuen bidez konservatzen da.

Iratzi hizkuntzaren hitzak —kultur hitzak— ia bethi kultur-kyklo batetan basian dagoen kultur hizkuntza batetik dathortza, hunen arauera Europan hitz hauien ethorkia helleno-latino da, Indian sanskritikoa, Asi Ekhialdekoan Txinarazkoa, eta herri islâmikoetan araboa.

Hitz hauk bethi hizkuntza jakintzalarien, jakintsuen eta literaturgileen ekhinzaren bidez sartu dira. Frantsesez hitz hauk “mots d’origine savante” direla erraiten da.

Hitz haien orthographia, halakotz, hizkuntza guztietan, eredu differenteetan erabilten dira. Bainan bethi orthographi hau berdina da kultur-hizkuntzetan.

Mintzatu hizkuntzaren orthographia

Mintzatu hizkuntzan gehienetan prinzipio basikoa PHÔNETISMOA da. Hitzak ahoskatzen diren bezala iratzi behar liratezke.

Kultur hitzen orthographia

Hemen prinzipio basikoa osotoro differenta da:

Hemen hitzak nola iratzen bait dira, halatan ahoskatu behar dira. Eta irazkera bethi kultur-enborra den hizkuntza klasikoaren orthographiaz egiten da.

Berhain, herri batzuetan, batez ere kulturaren nivela beheititu denetan, nolobait mintzatu hizkuntzaren prinzipioa kultur hitzetan ere sartzen dateke

Gaur egunean Europako kulturaren enborra hizkuntza zahar hauk dira:

(1a.) Graikoa eta (2a.) latina. (Latinez ere graiko hitzen beren ahoskuztea konservatzen zuten.)

Geroz hauekin batera anglara ta alemanara orain MUNDU GUZTIAN dagozen hizkuntza universalak dira. *Hizkuntza universal* denominazionea emaiten zaio hizkuntza bati, zeintan kultur materia guztiei buruz bibliographi osoa bait dago.

Bi hizkuntza hauietan ia mundu osoa publikatzen den literatur osoaren erdia argitaratzen da. Bi hizkuntza hauek eta frantsesarak' huntaz gainera kultur hitzen orthographi klasikoa konservatzen dute. Hunen araura, munduan publikatzen den literatura (batez ere jakintza-literatureren) % 60 kultur hitzek latinez zedukaten aspektu optikoaz publikatzen da.

Beraz hemen praktikan *erraztasuna* hitz hauek anglaraz, alemanaraz eta frantsez duten orthographiaz iraztea da, zeren-eta bizi modernoan persona batek bere kultura hedata nahi dezanean, nahi-eta-ez hizkuntza hauietan irazitza dagozen textuetarat joan behar bait du, eta orduan *erraztasuna* bethi izanen da, hitzak jadanik kultur textu hauietan ageriko diren formez ezaguztea.

Euskalzaindiak jadanik (neure aburuz 1950/n gora behera) euskaraz kultur hitzak HIZKUNTZA ORIGINALETAN zedukaten orthographiaz ere' iratzi behar zirela arthamendatzeko erabakia onhartu zuen.

Neure aburuz arthamendu hori berriro egin behar lizatekela.

Beraz *euskaraz kultur hitzak' beren forma graiko-latinaz iratzi behar liratezke, eta ez españaraz duten forman.*

Motivoak

1. Mundu guztiko hizkuntza (iratzi hizkuntza) importanteetan hunela egiten bait da.

Hizkuntza hauietan gaur eguneko hizkuntza universalak bait dagotza, beren kultura hedatu behar duten professionelleek nahi eta ez, lehenago edo geroago, hizkuntza hauietan iratziko textuak irakurri egin behar bait dituzte, ama-hizkuntza ere kultur hitzak hola iratzi behar liritezke, nola geroago beharkizunetan irakurriko dituzten.

2. Nola euskaraz' askotan gaztelaniatik ERDARAKADARIK gehiegi sartzen bait dira, halatan ongi da, hunelako invasione pseudo-kulturalari aitzizki orthographizko murru bat ezartea.
3. Gaztelania, mundu osoan, eta batez ere gaur eguneko kulturaren eta teknikean ez da egiazko kultur hizkuntza bat, hizkuntza marginal bat baizik, beraz euskara' gaztelaniaren kultur-menpean ezarten ba da, ez soilik eta bakharririk euskarari baizik-eta batez ere euskaldunei' kalte eginen generauke.
4. Euskaldunek gaur egunean pairatzen duten kultur-imperialismuaren aitzizki salbatzekotz. Batez ere orain arte pairatzen duten kolonialismuaren eta kolonizatuen komplexutik liberatzekotz.
5. Euskararen personalitatea zentzu huntan ere ongi finkatzekotz.
6. Finkatzapen hunen bidez euskaldunen kultur-interessea Europako kultur fokuerata zuzentzekotz.

* * *

Beraz zentzu huntan euskaraz $\begin{matrix} v \\ y \end{matrix}$ (vokal bezala ü ahoskatzea), $\begin{matrix} \theta \\ th \end{matrix}$, $\begin{matrix} \phi \\ ph \end{matrix}$, $\begin{matrix} \kappa \\ kh \end{matrix}$, eta $\begin{matrix} x \\ \xi \end{matrix}$ (hau *kz* ahoskatzeaz) konservatu behar liritezke.

Geroz graiko hitzetan: $\begin{matrix} \alpha i \\ ai \end{matrix}$, $\begin{matrix} oi \\ oi \end{matrix}$ eta $\begin{matrix} \epsilon i \\ ei \end{matrix}$ diphthongoak konservatu.

Gehienetan -s bezala agerten den nominativu bukaera khentzea, salvu-eta (izen neutroetan, non -s hori organikoa bait da).

Deklinazone konsonantikoetan, akkusativuaren forma edo genitivuaren forma; nominativuaren oreduaz erabiltea. Hau' huntara ere bertze hizkuntzetan egiten da:

mêninga (ez mêninx) españolez: meninge
salpinga (eta ez salpinx)
Pyramide (eta ez Pyramís)

Nahiz eta nominativuaren -s khendu behar denarren, hitz neutroetan ez da hunelakorik egin behar. Adibidez: *telos* (gen. *telus*) eta batez ere izen propioetan: *Aristotelês* eta ez *Aristotelê* (gen. *Aristotelus*) *Periklês* (eta ez: *Periklê*).

Hunela ere, mirikuntzan (bukaera konvenzional bezala erabilten den *itis* delakoz egin behar lizateke: euskaraz ere *mêningitis* (-s konsonanteaz).